

ANAITASUNA

ELIEZER BEN YEHUDA

Idazle eta Jakintzu (II)


Zubeldia'tar Iñaki

Ben Yehuda'k ez eban hebreo izkuntza berbiztu bakarrik egin. Judutarren literaturak eta amaika eta amaika berba barriak Eliezerri zor deutsoe bizia. Jerusalem'era eldu bezain laster Israel guztian hebreoa zabaltzen asi zan.

Berak Viena'n egindako deiari erantzunaz gazte asko joan ziran Israel'era, ta Eliezerren izkuntza ikasi eban. Gazte onek uri barri bat sortu eban **Rishón Le Sión** izenagaz, ta uri au izan zan gero hebreozaletasunean beti aurretik joan zana. Ben Yehuda'k oso lagun ebazan Rishón Le Sión'go aberritar gazteak. Euren animoagaz aldizkari bat atara eban dana hebreoz. Gogoan artu daigun ondiño hebreoa berpiztu barik egoala, ta ia iñok ez ebalu ulertuten. Alan da guztiz be Eliezer ez da bildurtuten. Lenengoan 160 ale atara ebazan. Gero geiago apurka apurka.

Aldizkari onek lur jo eian Turkia'ko Gobernuak egiñalak egiten ebazan, baimena kenduaz, inpuestoak kobratuaz eta beste era askotara, ze judutarren askatasuna emendik etorri eitekeala ikusten eban-da. Baiña dana alperrik. Eliezerren gurarien iraupena eta indarra burdiña baiño askoz be gogorragoa zan. Estualdiak eta larritasunak pasatea eguneroko ogia lez biurtu jakon. Batean dirua falta irarkolako moldeak ordainduteko edo paperaren zorrak gitxiagotzeko. Bestean Jerusalem'en egozan Turkia'ko agintariak kontuz ibilteko esaten eutsoela askatasun-usaiñik bariko berbak ibilliaz, kartzelako illuna eta bakaratasuna probatu gura ezpaebazan. Bein kartzelan be sartu eban, baiña barriz laster urteteko. Eliezer Ben Yehudak berak bakarrik jakingo dau zenbat neke, min, estuasun eta bildur pasa dituan aldizkaria aurrera eroateko. Baiña aizkenean aldizkari aundia eta ederra egin eban, munduan izan dan lenengo aldizkaria hebreoz. Aolan Israel'go judutarrak euren izkuntzan irakurten eban amabostero. Gure gazte kementsuak zenbaki bakotxean berba barriak argitaratzen ebazan, erriak apurka-apurka ikasi eiazan.

Berba barriak?, esango dozue. Bai. Eliezer berba barriak sortzen eta galduta egozanak argira ataraten ari zan. Iztegi bat egiteko asmotan ebillen, eta berba barri asko idoro ebazan antxiñako liburuetan. Onetarako Londreseko British Museum, Berlin, Paris, Mosku eta beste uri asko etako liburutegiak ikusmiratu ebazan. Liburutegi bakotxetik millaka eta millaka papertxo idatziak ataratzen ebazan berba barrien esangurakaz. Bere etxean be amaika antxiñako liburu ba eukazan, ta egun osoa liburu orreek irakurriaz pasaten eban. Egunean amazortzi eta emeretzi or-



du igaroten ebazan berba galduak biltzen eta barriak sortzen. Azkenerako begiak eta burua nekaturik eta gorputza lertuta amaituten eban.

Aldizkariaren biarragaz batera iztegiarena eroaten eban. Andreak lan asko egiten eutson. Eliezer eta bere andrea bat etortzen ziran gauza guztietan. Ondo alkartuta bizi ziran, eta bere eginbearretan be alkarri lana arintzen eutsoen. Eskerrak andreak, eta au egia da. Osteratzean Ben Yehuda'k ez eban egin-ebanaren erdirik be egingo. Eta gai onetan andra biak izan ziran ikusgarriak: lenengo Debora ta gero Pola bere aiztea. Zelako bizitza gogorra ar-

tu eban eurentzat Eliezer eta bere idealismoagaitik. Euskal andreen artean olakorik asko balego!...

Ta azkenean iztegia atara eban. Baiñan ze iztegia! Amasei liburuetan zatitua, ta liburu bakotxa 400 orrialdekoa. Jakintzu guztiek esan ebenez balio aundiko iztegia eta mundu au baiño borondate aundiagoa eukan gizon batek egin leikeana zan. Iztegi sakona, ederra eta jakinduriz betea Ben Yehuda'k argitaratu ebana.

Eta orain gaurko egunetara begiratu daigun. Israel'en la danak hebreoz berba egiten dabe, eta idatzi be bardin. Igazko Nobel Saria Literatura'n bi judutarrek irabazi eban: Nelly Sachs andreak eta Joseph Agnon gizonak. Nelly Sachs Suezia'n bizi da ta hebreoz ez dau idazten, baiño judutarren problemari buruz idazten dau. Joseph Agnon, barriz, judutarra da burutik oiñetaraiño. Hebreoa besterik ez daki, ta dana hebreoz idazten dau. Ta orain dala gitxi arte bi milla urtetan lo egon dan hebreoz idazten dauan gizon onek irabazi dau Nobel Saria Literatura'n. Benetan goragarriak Eliezer eta bere jarraitzaileak. Anai euskaldunok, itxartu gaitezau judutarren erakuspen ederra ikusiaz. Naiz-ta emendik berrogei urtera izan, euskal-idazle batek Nobel Saria irabaziko ba-leu, axe egun aundia izango litzake guztiontzat. Begiak zabalik, goazen euskaldunok aurrera, arnasea galdu barik.

OARRAK:

- + **Eliazar Ben Yehudari** buruz argitaratu genduan I idazlanean (5-gn. zenbakia), bere jaiotza urtea oker agertu zan; 1958, 1858 orde. Parkatu.
- + **Eliazar Ben Yehudari** buruz idatzitako liburu on bat irakurri nai dauanak, aurkitu leike erderaz jarrita dagoan **EL REBELDE DE JERUSALEN**, Robert St. John-ena. Editorial Candelabro. Buenos Aires.

OBA - DIMA'tik

Bagillaren 16'an ezkondu zan Mari Kar-men Ibarra, ANAITASUNaren lankide ja-torra, Jose Mari Badiolagaz, Dimako Oba erri txoan. ANAITASUNak idazlan jakingarriak zor deutoz Mari Karmeneri. Gaurko gaztediari ta eusko irakaskintzari buruz artikulua bikainak eskiñi deuskuz bere lu-ma oparoak. Zorionak biori! Ta ez itxi lu-mea erdoitzen. Ezkonduaz, erantzukizun barri eta astunak artu izanarren, noizik bein bada be —sarri balitz, obeto— zure lan mamintsuak artuko doguzalakoa gagoz.

MATXITU'tik

Entzutea dodanez, Gernika inguruan An-dra Mari jaiak, lenago, erri askotan ospa-tzen ziran; baiña azkenaldi ontan ez, Ger-nikan ospatzen diralako zaratsatu. Baiña ez da olan subertatzen Natxituko erri-txoan; an sekulako jaiak egin dituez aur-ton be; antza dagonez, angotarrak ez deu-tse bildurrik Gernikarren konpetenziari; eta zertan euki be ez ganera.

Andra Mari egunez, San Rokez eta urren-go domekaz jai guztiz jatorrak eta errita-rrak eratu ta moldau dituez ango gazteak.

Andra Mari egunean, goizean «zuriketa» dezente bat egin ondoren, arratsaldean ikusgarritzko partidu bat egon zan. Onen ostean, barriz, Gernikako «Elai-Alai» koak zoraturik jarri zituen natxitutar guztiak euren dantzakaz; zar eta gazte ez ziran nekaten txaloak jotzen. Ta gabaz errome-ria ta sekulakoa egon be.

Urrengo egunean, San Rokez, bertso-lariak alaitu eben eguna; Muniategik eta Amurizak barre algaraz izugarriak sortu eragin zituen. Abogaua ta abadea alkarren pare bertso botatzen! Ikastunak biurtuko ete dira errira!

Ume koskorak be majo jolastu ziran egun onetan arratsaldeko ume jokoakaz.

Ta azkenengo eguna, urrengo domekan. Andra Mariz eta San Rokez ondo igaro baziran egunak, urrengo domekan be ba zan makiña bat istillu Natxitu aldean: pe-lotariak zirala, bertsolariak be nastean egozala, astoak be txalmatu bearra egola...

Natxitutar gazteak agertu dabe, jaiak atonduten ez dirala eroak, eta adorea ta egin-naia dagozan bitartean, naiz Gernikan izan jaiak naiz beste edonun, atondu lei-tekezala politik eta erritarrak auzunerik eskasenean be.

Urtero legez aurton be bardin, Natxituko auzunean Andra Mariak pasau dituez girorik ederrenean. Dezente xamar guzti-guztiak gero ta jan ta edanean. Zelan igaro ez jaiak ederto munduko erri onenean.

Aranburu'tar Joseba Andoni

GAZTEIZ'tik

«Gazteiz», Arabako uriburuen argitara-tzen dan aldizkariaren azkenengo zenbakia eskuratu jaku. Zenbaki berezia atara dabe, Edurretako Andra Mari, Ama Birjiña Zu-riaren jaiak dirala-ta.

Zuzendari ta argitaratzaile, Jose Maria Sedano jaunak —egunkari ta irratian ain ezaguna danak— ale eder bat atara dau, argazki ugariz, alkar izketa jakingarriak ospe andiko izenpean dirala, gure anai Ara-ba probintziari buruz kondairako kritika-lan egokiakaz.

«Gazteiz» aldizkariak X urtea bete dau, eta bere orrietan euskerea be agertu jaku. Orregaitik poztuten gara batez be, ta urrengoetan be orrelantxe izatea gura geunke.

Araba, orain 50 urte —gaur ba dira ber-tan erri euskaldunak— izkuntza bigaz bizi zan, euskerea ta erdere. Danon artean, Arabako lurralde jatorretara euskerea biurtzea lortu bear dogu.

ANAITASUNak biotzez emoten deutoz zorionak GAZTEIZeri. Batez be, zorionak Sedano jaun lagunari, jaietako ale berezia ain dotore ta eder argitaratu daualako.

NE SKA

Neska euskalduna gura litzake etxeko laguntzarako ALGORTA'n.

Etxeko lez artua, eta bere zere-giñetarako be, astia eukiko leuke.

Deitu: 216642 — Bilbo'n.

TXORIERRI'tik

Bizkaian be egongo dira, baten batzuk beintzat, Txorierrri non dagoan ez daki-nak. Txorierrri, ez da erri bat, erri-pillo bat baiño. Txorierrriko erriak oneitxek dira: Larrabetzu, Lezama, Zamudio, Derio, Son-dika, Asu, Luju, Erandio eta Lejona.

Txorierrin —eta non ez?— gauza pozga-rriak eta tristeak pasaten dira.

Eta gaur penagarri bat kontau bear dot. Nai ta erririk ez aipatu.

Ondiño oraintsu, Txorierrriko toki baten jaiak izan ziran. Joan giñan eta altaboze-tik dana erdera utsez. Nire lagun bat joan jaken esaten, ia euskeraz zegaitik ez eben egiten. Baiña, Txorierrriko guardazebillako sarjentoa an egoala ta, ezin egin eitekela. Baiña, ia galerazo egin baeban. Eta ezetz, baiña...

Arein esanak entzunda, inpernutik urten-dako otso amorratu bat ete zan pentsa eban. Dana dala, egiten ezpaeban, ANAI-TASUNA-ra, TXISTULARI-ra eta Z. AR-GIA-ra parte emongo ebala esan eutsen nire lagunak. Baiña dana alperrik.

Jota dantza txapelketa bat egin bear zan, eta dantzariel zer pasetan zan esan eta eurak zelan gura eben bietara berba egitea agertu eutsoen organizaziñokoei. Baiña ori be alper aperrikoa.

Azkenerako, altabozetik izenak esan os-tean, pareja bat izan ezik —dantzarietan be danetariakoak dagoz—, dantzariak ez egi-tea erabagi eben. Eta orduan, beste eska-patoriarik ez eukenda, naita euren boron-datearen kontra —au argi dagola uste dot—, euskeraz egin zan.

Baiña eurak aipatutako sarjentoa an egon zan bakean; eta nik dakidanik bein-tzat, iñori kalterik egin barik.

Gero esaten eben sarjentoa. Eurak ete ziran? Edo eurak sortutakoren bat ame-tsetan...

Gero nire lagunari, ba dakit, au ta bes-tea esaten ibilli ziran, konprendidu gen-

giala zelan ebillan gauzea, eta mesedez, ez egiala orren barririk iñora bialdu. Antza dagoanez, eurak be igarri eutsoen guztiz ondo portatu ez zirana.

Eta orregaitik, nire lagun ori guzturtizat ez itxearren eta eurak be personalmentean ez mindutearren, erririk ez noa esatera.

Orain arte, emen ANAITASUNA-n Txo-rierrriko barri andirik ez dogu ikusi. Ia ba, emendik aurrera, sarriago ikusten do-gun. Ia gazteak!

Ez pentseu gero, irakurleok, Txorierrriko gaztedia onelakoa danik. Esan doguzan orreik be, egun orretan itsututa egon zira-lako egingo eben.

Txorierritarrak euren Txorierrri, Bizkaia, Euskalerrria eta Europa biotz-biotzetik maite dabenak dira.

Erramon Gerrikagoitia

«TXORI ERRI»-REN NEGAR-ABESTIA

Udaberrian kaiolan sartzen dituen txo-riak ikusi dodaz. Penagarria. Munduan zear erri txiki asko dira udabarria soma-tzen asiak... odei baltz aundiak be or iza-narren.

Aprikako erri menperatuen askatasuna, era guztietako izkuntza ta kulturen indar barria, ONU'ko Deklaraziñoak, Eleiz Ba-tzarraren berbak, norbere eskubide ta nor-tasunaren kontzientzi biztua... udabarriko ezaugarriak erri askorentzat.

Baiña gure txoria... udabarria eta kaiola-ra. Bein esukaldun ameslari batek «Txo-rierrri» deitu eutsen orain txoriak eta erriak ostendu diran ballada eder bateri: Lejona, Erandio, Luju, Larrondo, Derio, Zamudio, Lezama, Larrabetzu...

Orain beste gauza bat da. Or datorku Bilbo-Aundia, bela baltzaren antzera txori txikien billa. «El Gran Bilbao». Ba datoz etxe aundiak, autobusak; ba dator zaratea, keia, dirua, etorkizuna... Baiña txoriak kaiolan sartzen ditue eta baita be... erriak.

Erri bakotzak bere edertasunak daukoz, diruaz ezin neurtu leitekezanak.

Sondikak, Zamudiok, Deriok... «Txori erriek» euren erritasuna euki dabe, euren izkuntza, euren oiturak, euren istoria. Euki dabe zeozer euren munduari emoteko, mundua eder egiteko.

Baiña orain ezta entzuten emengo txo-rien abestirik. Zer jazoten da? Kanpo-txo-rien iskanbillak ixillerazo gaitu? Neurri bako inmigraziñoari ateak zabalik. Nor ipiñi dogu ateak zaintzeko? Gure txoriari ekarri deuten urregorritzko kaiolak ete dauko ba errua? Kapitalismoak urrea emon eta arimea kentzen deusku, «kultu-rea» emon eta nortasuna kendu.

Ala gure txoria ete da erru geien dau-kona? Kaiolako «alpilea» ona eritxi eta urten gura ez. Kaiolako alpileagaitik as-katasuna galtzen dozun txoria, eztozu me-rezi txori izaterik.

Txorierrri, zeuk galdu bear dozu zure izena!

* * *

Dei bat udabarrian egatan dabilzan txo-ri guztientzat, erri guztientzat... «Txori-erri»-ren negar-abestia.

Jesus Naberan

IKUSTEN ETA IKASTEN

joan mari torrealday

Egoera bat

Ni ondo

Zu ondo

Bera ondo

Gu txarto

Zuek txarto

Areek txarto

Deklinaziño barriren bat ete da?

Barria? Kial Zoritxarrez ez da barria. Nik, beintzat, beti ezagutu dot alan. Esan leiteke, euskaldunon gaixotasuna dala.

Gutariko bakoitxa, bakoitxari aparte begiratuta, ederto-edo ari dala bierrean esan geinke. Gauza politikak egiten ditu, ta ondo egin be. Ondo dabil. Ondo zabiltz. Ondo nabil.

Baiña ez gara konturatu oraindiño, bakoitxa bere aldetik joanik, ez daitekela orretara gaurko munduan aurreratu? Ez jaku, antza, Euskalerraren bizitza ardura, geurea baiño. Bata-suna dogu bearrezko. Erri lez, gaiñera, bizitzeko baldinkizun, kondiziño, jaku diñogun alkartasun ori.

Ta ain zuzen, orixe da falta jakuna.

Zer gertatzen da ekipoan lanean asteko orduan? Konpondu-eziña, ikusi-eziña, batu-eziña, alkartu-eziña. Au dana, ta geiago. Ara: neiko aldizkari (txiki ta ez ain txiki) dago Euskalerrian... Batak bestereakin eztauko zer-ikusirik. Ori da egia. Bizkaia emen dago, Gipuzkoa an, Lapurdi arantzago... Ba daukogu alkarren ezagutzerik? Aberatsak ba dagoz Euskalerrian (txarto ezpanago)... Euskalerraren alde zer egin bear be bai (txarto ezpanago)... Egiten dabe ezer?

Auxe da gure egoera.

Diñotana: Batasuna ta alkartasuna bagenduz, orain daukogu apurragaz be asko lortuko geunke. Gure Euskalerriak beste itxura bat eukiko leuke, ez agoniakoa.

Ni ortan nago.

bai batak eta bai besteak

Gaur berba asko egiten da, bataren alde edo bestearen aurka. Pontu batzuetan suertez dabiltz, azken-urteotan, emakumeak, eritxiak euren alde doaz-ta. Danon bardintasuna aldarrikatzean, esaterako.

Danon bardintasuna. Ta ez oraiñarte lez. Adibide bat jarriko dot, agergarritzat: Neskaren batek birjintasuna galtzen banean, nogaz ezkondu eitekean gizajia gero? Ta, ostera, mutil gazteentzat libre zan —ta ez ain txarto ikusia— emagaldueri bisitatxoren bat egitea. (Maitasunaren eskabideak izaki, segurutik!) Olako neskea dala ta ez dala, erri osoa mar-mar. Gizona balitz: mutik. Gizonaren deretxoak! Zeozergaitik gozak gizonetzkoak, ez ala?

Gizonezkoen artean uste ta eritxi au zabaldurik egoala ba nekian. Uste enebana zan emakumezkoen artean be olan eitekeanik.

Italia'n egin eutsen itaun au 500 gazteri, mutil ta neska: Andrazkoari ezkontzeko birjintasuna eskatzen jakon ezkerro, ia gizonetzkoeri be eskatu bearko ete litzakien. Auxe zan itauna.

Ara erantzunak:

Baietza, 104 mutillek eta 90 neskek erantzun eben.

Ezetz, ez jakela eskatu bear, 144 mutillek eta 122 neskek. Gaiñerakoak ez eben erantzun, edo ez euken eritxirik orretan.

Siñistu!

Andrakaz gagozan ezkerro, beste adibide bat be esan bear dogu. Euren alde. Emakumearen promozioa dala-ta, androk munduan artuten doazen garrantzia ezin leiteke ukatu. Duda-rik eztago: Kontzilioak asko lagundu deutso pontu onetan emakumeari.

Baiña, Foru'n, orretarako, ez da Kontzilioaren bearrianik izan. Bost urte dirala dogu emen andra bat aguazil. Gero, telebisiñoa, tabar, eztaikit nun Senadukoa egin dabela andra bat-eta, ibilliko dira! Ze demoniño! Antzik ba ete dauko, gero, Senadukoa izateak Foru'ko aguazil izateagaz? Senadukoak eztauko porrarik be!

Irakurri dozue oingorako egunerokoetan, Gipuzkoa'ko periodikuetan be agertu da-ta. Diñotanez, andra bat, Juana Bastarretxea, da Foru erriko aguazilla. Bost urte eginkizun orretan eroanaz be, ez ei dau iñor kartzelara eroan bearrik izan. Alan da ze, sitsak dira kartzelan nagusi... Ori da forutarren suertea! Baiña, ez deskuidatzeko, diño gure aguazillak. Kontuz, forutarrak, badaezpadan be!

Gure aguazillak diñonez, bere asarrealdi bakarrak umien amakaz izan dauz, umiori barrabaskerien bategaitik errieta egin deustela-ta. Ez da burukomin askorik aguazil batentzako. Ori balitz inguruetako aguazillen problema ta biotz-miñik andiena, ofizio orretarako eskabideak ugarituko litzakez, bai. Edo ostantzean, problemarik ez daien euki, Foru'n lez, andrak imiñi bear. Ez ala? Orretara, ez litzake, bearbada, problemarik egongo, baiña, beintzat, berba-otsa entzungo geunke bazterretan! Ez dakit zein litzaken obea.

Foru'ko gure aguazillari ikustalditxoren bat egin gura ba-deutsazue, ba dakizue Foru nun dagon.

ERRIEN AURRERAKUNTZA

PAUL VI'garrenaren

AGIRIA

euskeratuta salgai daukazu, eskatu nai dozuzan beste

ANAITASUNA - Irala, 8 - BILBAO-12

ANAITASUNA

8

Kantauriko Frantziskotarrak argitaratua

ANAITASUNA idazti lez agertuko da, aldizkari lez argitaratzeko baimenak eldu artean.

IDAZTI 1967 - ko IRAILLAREN 23 - an AMAITU EBAN «GRAFICAS BILBAO» IRARKOLAK.

Zuzendaritza ta Banakola
Irala, 8. — Bilbao-12

D. L.: BI 1.753 - 1967

GRAFICAS BILBAO - Gordóniz, 28, 3.º - BILBAO-12



Jose Azurmendi

Alemaniatik

Bestetik, amerikanoak eta inglesak beren OTAN-go tropa talde batzuek emendik etxeratu ebezanean iruren arteko akordua-
gaz egin eben, eta orain Alemaniak be bardin egin bearko dau.

• Dinamarkako zozialdemokraten aldizkari «Aktuell»-ek diñonez, au guztia mirari bat lez da: komunista aldeko Estaduekaz egoan ezinikusia berealakoan asi iaku bigunduten. Orain Armada be gitxiagotu gura dabe. Kiesingerek karta bat idatzi deuto Stoph Alemania komunistako ministro lendakariari. Onek guztiak zerbait esan gura dau: mirari bategaitik lez, alemaniar-
rak euren bildur itzela apur bat galduten asi dira. Baiña zerbait besterik be esan gura deusku: orain arte Alemaniak ez dau-
ala bere politikarik egin ahal izan, amerikanoen morroin bat izan dala. Eta orain, apurtxo bat beintzat, bere bideá egin gura leuke.

Alan be Ulbrichtek bein eta berrero erasotzen deuta Alemania federalari. Oso gogor egin dau berba Rostockeko berbal-
dian: Bonndarrak indartsuago daukoe zantz-
toa, obratutea baiño —esan dau.

• Alemania-ko protestanteak laguntziño andia emoten dagoz Sortalde Urbilleko igesegindakoeri. Orain arte, batez be, Joar-
daniari lagundu deutoe. 3.000 personentzako kanpaiñatxabolak eroan eta altxau dabez, ta 22 tonelada umeendako janari Ammanera trasportau. Katolikoak be lagundu dabe. Ta laguntziño onetan telebix-

ta, gobernua ta erakunde asko dagoz baturik.

• Interes bizi bategaz jarraituten dabez alemaniar-
rak ego-Tiroleko goraberak. Batez be orain, Moro, Fanfani eta Nenni erri-
ministro Tavrianigaz eta justiziaministro Realegaz auzi onen ganean berba egiteko alkartu diranean. Italiak Austriaren kontra protestatu dau, austriar soldaduek Ci-
ma Valconan italiar muga pasau ebelako. Austriako atzerriministro Toncicek agindu dau «liburu zuri» bat agertutea, ego-Tiro-
leko terroristeri lagunduten ez deutsela garbituteko. Ikusiko dogu nor-
k sinistuten dauan liburu zuri au.

• Alemania-ko periodikoek diñoenez Ma-
llorca-ko taxistak asarre batean dagoz aurtengo udan, Turistak ez dabe dirua arrika bota gura. Ganera, igazko urtean baiño turista gitxiago ikusi zan aurtengo maiatza artean Mallorca-n. Urtean urtean gei-
ago ziran turistak, orain gitxituten asi ote dira? Esaten dabe alemanak: alajaiñe, karuegi biurtu dira Mallorcan hotelak eta bitzita! Ba da besterik be, ze Alemania krisian dabil, Inglaterrak dibixa kastua extutu dau, eta giroa be zantartxoá izan ei da aurtan Mallorcan. Maiatza ezketiño tur-
ristak ugaritu dira osterá be, baiña dibixak ez dabe joandako urteetan lez korriduten. Alemaniar periodikoek Casta Blanca gomendatzen dabe. Valencia ta Alicante merkeago dira. Kartereari be begiratu egin bear iako.

• Alemania krisi zorrotz batean dagola gauza ezaguna dogu. Ori dala-ta Armada-
ren kastuak gitxiagotutea erabagi dau orain Alemaniako gobernuak. Soldadu gitxiago, soldadutza laburragoa, eta airear-
man batez be, arma ikaragarri karu orreekaz kontu geiago. Ori da alemaniar agin-
tarien asmoa. Alan be, ezin esan leiteke alemaniar-
rak asmo orreekaz poztu egin di-
reanik. Errusiaren bildur ikaragarri bat dago emen.

• Nazioarteko prolema bat da au, ze Ale-
maniako tropa danak OTAN-en indarretako parte dira. Amerikak, ba, arpegi illuna ipiñi ei dau, oraindiño ezez garbirik esan ez badau be. McNamarak Bonnera egin bear eban ikustaldia atzeratu egin dau.

Europatik zear

* Il onen (garilla) 8-an, Belgradon, Yugoslaviako Partidu komunistaren Ejekutiboko Sekretario Todorovicek osterá eraso deuta Errusiari, somakarien eritxian. Beargiñek agintari ez baiño «aitaordekoek» gidatutako estaduez burla egiten eban, estadu burgesak kritikau ostean. Yugoslaviak lenago be askotan bota deuta Errusiari estatismo akusaziñoa. Azkenaldian, alan be, bakan egozala esan eitekean. Baiña orain, alde batetik Tito Errusiagaz adiskidetutenago dabillega sekula baiño dirudi, Sortalde Urbilleko goraberak dirala-ta, baiña bestetik Grvenkovski mazedoniar Alderdi komunistaren buruzagiak betiko arian jarraituten dau, estadu komunista batzuen deformaziñoak salatuten, eta Todorovicek be aspaldiko leloak barritu deuskuz. Zerbait dabil gortinaren atzetik.

* Boris Pankin, Mozkuko «Konsomolskaja Prawda» (7 milloirakurle) egunerokoaren idazkaritza zuzendaria ankan gora bota dabe bere periodikotik. Onek argitara eban artikulo batek min emon deuto Komunista Alderdiko zenbaiteri: Teatroaren askatasuna eskatuten eban, Teatroa gobernuaren zentsuratik libre itxeko. (Teatroaren responsableak komunista direla ta orren zentsura naiko dala esaten eban.) Zuzendari barria sartun danean esan dau onek, Boris Pankinek eskatuten ebanak arteari kalte egiten deusola, ze, arteak Alderdi Komunistagaz ixtu ixtu bateginda egon bear dauala. Ze, teatro idazlea kultura sortuten dauana dala, eta Partiduaren Organuak direla kultura banatuteko Organu izendatuak. Boris Pankinek, au ondo jakinda be, sensazionalista izan gura dauala.

* Alemania komunistak eskandinabiar estaduekaz artuemonak asi gura dauz, bai politikan bai salerosketan, eta lortuko dauala dirudi.

* Domodedowoko airpurtuan egin dan Paradan argi erakutsi dau Mozkuk zelako aurrerapenak egin dabez an airoplano kontuan. Arriturik geratu dira danak arekaz. Au izan da Mozkuko 21'garren aireparada. Eundaka milla egozan begira. Lehenago be nazioarteko tensiño momentuetan bein baiño geiagotan egin dauz olakoxe Parada ikusgarri ta bildurgarriak. Politikan, arma bat blurtu iaku bildurra.

* Ungarian lanasteak 44 ordu eukiko ditu emetik aurrera, (au da Paradarik pozgarriena), eta ez 48, orain arte lez, MTI albixte ajenziak argitu dauanez. Lege au astiro astiro sartuko da, urte baten luzean.

* Pragan beste idazle bat auzipetu dabe. Txekoslovakian idazle Jan Benes, 6 illabete espetxean egon dana. Gobernuak ez dau oraindiño zein gaiztakeria salatuten iakon agertu. Il onen asikeran idazleen 4'garren Biltzarra zala-ta, Alderdi komunista eta idazle alkartasuna alkarri musturka ibilli dira.

* Osterá be aire txarrak astindurik dabil Korea. Bien erdiko mugan tiroteoak izan ei dira, eta kulpak, beti lez, batak besteari botaten deutseze.

* Rumania be sartalderantza makurtuten asia dogu nunbait. Alemania komunistak traidore ta olako lore asko esan deutsozan arren, Alemania federalagaz artuemonetan sartu da. Enbajadak eta edegi dabez, salerosketa tratuak erabagi, eta bitartean emengo (Alemaniako) kale danak Rumaniko turismo paperen koloreek udabarria koloretuago deuskue.

Jose Azurmendi

Euskal Abadegai-etxea

Amets zoro bat? Berezko eskubide bat? Ez gara erri bat? Bai baña...; beti bardin, betiko *bai baña*... Ez dago bai baña. Edo erri bat ondoren guztiekaz: Euskal Ikastetxe Nagusia, Euskal Abadegaitegia, ta ab. ta ab. edo sasi-erri bat: teoriz euskalduna, jakintza ta izatez gazteleratua. Tamalez, gaur jazoten dana. Abadegaitegi ederrak daukaguz euskal lur gañean, baña oso txiroak; oso txiroak euskal baloreai begira, gure izateari begira, gure izkuntzari begira. Oizpean ikastetxe bat egonarren, ezin dogu esan euskalduna dala, Euskalerrian dagola baña.

Euskal Abadegaitegia: Gauza ederra, baña... Gaur Euskalerria iltera badoa, biar ilda egongo da. Ez, ez da amets zoro bat. Enaz ni bakarrik orretan nagona. Abadegai-talde baten ametsa da; geroago ta geiago indar artzen doan bearrizan bat.

Flamenkoak ez gara, Katalandarrak ez gara. Zugaz batera. Gure izatea ez da euren, baña gure jokabidea, *gaur*, elitzake bardiña izan bear, gauza batzuetan beintzat? Zuk erantzun egizu. Katalanak ta flamenkoak ezetarako ez dabe *balio*, naiz diru irabazteko (gauza batzuetan bai) naiz ospetsuak izateko gaurko munduan. Baña oneik ez dabe baztertu euren ama, kanpoko izkuntza bat arturik. Gure

ama aldatuko dogu, bestea indartsuagoa dalako, pratikoagoa dalako? Ez.

Noz arte euskal abadegaiok (Derio, Donosti, Iruña, Baiona ta ab.) erdaldunekaz bizi garalako, ezin izango dogu gure euskal izateari koipe osoa atara? Bananduta ezin bada, beste bide bat pentsau bear... Nire ustez, kaltegarriena da, gaur erabilten dan sasi-kristiñau *batasun* ori: garrantzitsuena da («jakintsuen» eritxiz) alkar kristiñau maitasuna, sinismena ta Jainkoaren grazia. Ori dok batasunaren 90%. Eta izkuntza bat edo bestea erabiltea, ori ez da lelokeri bat baño: 10%. Eta gaztelera danok aituten dogun lez...

Asmo txiro ta txiki onek ez dira sortu erdaldunei gorrotoagandik, zorakeri battegandik be ez; gure nortasunak ta erriaren etorkizunak diñoste, «Euskal Artzain Larra» al bait ariñen bear dogula eta ona eltzeko, *gaur*, Euskal Abadegaitegia deritxot bide egokiena, eta Abadegaitegiko buru ta zuzendari, abadeak eta abadegaiak aukeratuak. Gaur non artzen da, teoriz, «Euskal Artzainlanetarako» ikasbidea? Abadegaitegian? Ez dot uste. Madriletik agintzen dabena, ori dok garrantzitsuena. Hebreo ikasi bear dala? Hebreo ikasi bear da. Eta euskaldunen arazoak «politikoak» diran lez... eta Eleizeak «politikan» eztaukonez sartzerik...

Madrill oso urrun dago, kilometroz ez bada, izatez eta biotzez, eta onelako trokak, gogorak dira gero. Euskalerriko eleiz-agintariak (nagusiak batez be) latino-gaztelar-danamenpean gogoia agertzen dabe euren pentsakera ta bizikeran. Ba dagoz gure Abadegaitegietan latin izkuntzaren eriotza negartzen dabena; euskera, dagonik be ez... Ez dakigu ezer euskal intelektualetaz. Eta ba dagoz gure artean «euskal humanismoaren» antzeko bat sortu edo argitu egin dabena (idazlari, politika-gizonak, artistak ta ab.).

Nik onartuko neuke sistema bat, buru ta zuzendariak errikoak balira, erri-maitasuna jokabidearen akullua eta erri baten «minoría elduta» entzuteaz, baña iru gauza oneik, buztena be eztabe agertzen. Sistema bera (ez bakarrik uts batzuk) ariatik kanpora dabillega uste dot.

Euskal Abadegaitegia ez da gu, euskaldunok, euskal gizarteari begira bakarrik bizitzeko. Ez da erlijiozko separatismoa. Gaur, euskal gizonari serbitzeko eta kanpotik etorri danari eta Europatik datorren aire barria onartzeko, euskal Abadegaitegia era egokiena deritxot. **ATZOKO AMETSA, GAURKO EKINTZA.**

Bitor Egurrola

Beste eritxi bat

Kamiñazpi, ANAITASUNAREN 7'garren alean Zelayeta euskal idazleagaz sartzen da eta sartze onek eragiten nau erantzun auxe bialtzera.

Neure eritxi apal onek gura dau gauzak aztertzea beste barik. Eritxi onen arauz Kamiñazpiren «Bilbo Egaleko Kontuak» ustekeri bat da.

«Igalietatik ezagutuko dozue zugatza» Jesukristok esan eban eta Kamiñazpik gomutarazo.

Nik, Zelayetaz ez dot iñoiz barbarik egin, baiña Zelayetaren igali batzuk ikusi dodaz oster eta ain zuzenbere igali onak izan dira.

Gañera, Zelayetak beste idazlan geiago daukoz, danak onak eta Kamiñazpik irakurtzeko eran. Baiña alan da bere idazlan bategaitik bakarrik ebatzi gura dau.

Egun batean Zelayetak aitatu eban ger-

taera bat «Emakume Amorostua» izenpean. Gertaera edo ipuiña ez dakit ete dan baiña niretzat gauzak argi eta garbi dagoz idazlan orretan eta gai ori emakume beartsu baten ezkontzea da.

Ezkontze au Kamiñazpiren eritxiz sasi-ezkontze bat zan. Benetan, lege utsez begiratu ezker sasi-alkartze bat izango da baiña Jainkoaren eritxian ez, ez orixe Ba-dakizue legea gauza bat dala eta legearen espiritua beste bat.

Nire uste apalean emen dago Kamiñazpiren okerrunea. Ba, Eleizak ez dauz ezkontzen gizon-andrak. Eleizak gizon-andraren alkarte bidezkoak bedeinkatzen ditu bakarrik. Beraz, ezkontze bidezko bat egiteko ez da bear abaderik, ezkontzeak une larritsu baten ba-dagoz.

Beste oker bat zuzendu bear da. Norbait pekatu aztunean ba-dago, kristau

zintzo baten lenengo eginbearra da pekataria arrisku orretatik ataratzea, pekatariari biderdira urtenda, bear bada. Ori da Eleizak agintzen dauana.

Abade on batek bere eleiztar guztien gora berak jakinda, aitatu dogun eskandalua etzan gertatuko.

Beste oker andi bat zuzendu bear da Zelayeta euskal idazleari eskerrak emonaz «Amorostua» itz barriagaitik.

Parkatu, Zelayeta abade agurgarria, zuriketa au naiko egokia ez bada. Erri-gizon batena da, mutil zar batena.

Eta bide batez onu bat. Zinerik ez emon zure eleiztarrei. Zine barri bat jasotzea aitatu zendun egun batean eta nire ustez zinea baiño gauz obeagoak asko dagoz zure eleiztarrei eskeintzeko.

S. Larrea

EUSKERAZALEAK, euskerea erabilte aldeko alkartasuna sortu dala, pozik jakin dogu ANAITASUNAN idazten dogunok. Orixe da izan be gure aldizkariaren zeregin nagusien bat, euskerea zabaldu Bizkaian.

Emen argitaratzen dogu BEIN BEIÑEKO BATZORDE ARTEZKARIAK idatzi dauan agiria, ALKARTASUN au eraiki dabenen izenak bertan dirala. Gure izkuntzaren alde gogoz eta biotzez saiatu izan dirala autortu bearra dago.

EUSKERAZALEAK

Euskera erabilte aldeko alkartasuna

Mundu zabaleko Unibersidade askotan Euskera irakasteko tokiak sortzen ditue, antxiñetako kultura ondasun bizia ta baliotsua dalako. Gure errian, ostera, ainbat gizalditan bizirik iraun dauan arren, euskerea, berbeta bizi lez, galtzeko arriskuan daukagu.

Gorabeera ezegokiak kalte aundia egiten deutse, baiña gure zabarkeriak be bai, euskerea zainduteko iñor baiño beartua-goak garean arren.

Gauza ain ederra galtzen lagatea dan obena, gure ondorengoak salatu ez dagiskuen, gure laguntasuna eskeiñi nai deutsegu, euskerearen aldeko lanean jo ta ke leendik diarduenei.

Orretarako sortu da EUSKERAZALEAK, EUSKERA ERABILTE ALDEKO ALKARTASUNA, ez leendik diardueneen ordezkotzat geuk, al doguntxuan eurei laguntzeko baiño.

Alkartasun onetan, gure berbetearen alde egin gura daben guztiak batzandu nai gendukez, euskaldun izan ala ez.

Gure lan-asmuok onetxek dozuz:

- a) Erri-agintariengandik eta Jakite-agintariengandik euskerearenganako begirapena ta laguntasuna lortuerazo, bai irakaskintzan, bai erri bizitzan.
- b) Gure berbeta irakasteko tokiak geitu, ta orain orretan diarduenei lagundu.
- c) Gure umeentzat, berbeta bitariko eskolak sortu ta sortu-erazo, eta dagozanei lagundu.
- d) Euskera ikasteko metodu barrirazuak eta egokiak argitaratzea lortu; ta beste ikasgai egoki guztiak be bai.
- e) Irakasle barriak bear dan lez gertuteko laguntasuna eskeiñi, irakasle egokien premiña aundia dagoalako.
- f) Euskal-kultura aldeko joera guztiei indar emon: itzaldiak, teatru-jaiak, zine-erakusketak, literatura burrukak, liburuak, aldizkariak eta ebar.
- g) Eta orrez ganera, gure izkuntza maite au indar-barritzeko, legeen aruaez egin leitekean edozer egitea.

Egingarri direan asmo guztiak batu ta eginbidean jarri nai ditugu. Bidezko direan modu eta era guztiak erabili nai gendukez, eta erriak laguntasuna ukatzen ez badeusku, alegiñak egingo ditugu orrelantxe jarduteko.

Gure asmuok aintzat artzen dituen guztiak sartuko ditugu gure artean, nor nor dan begira ibilli barik. Ori lortzeko, emen dozu bazkide izateko eskabide-txartela. Gura izan ezkeru, bete, ta mesedez guri bialdu dagiskuzun.

Bilbon, 1967 garagarrilean.

BEIN BEIÑEKO BATZORDE ARTEZKARIA

Jesús de Oleaga; José M.ª Olaizola; Carlos González Echegaray; Julia Berrojalbiz; José A. Montiano; Castor de Uriarte; José de Ezpeleta; Adrián Celaya; Miguel A. Astiz; Juan Ramón Urquijo; Eusebio Erquiaga; Fernando de Zubizarreta; José M.ª Martín de Retana; Leopoldo Zugaza; José Luis Bengoa y Jesús Acha.

Ondo etorria, euskerea zaindu eta erabilteko ain bearrezko zan ALKARTASUN auxe. Ondore oparotsuenak nai deutseguz, euren borondate onenagaz lan onetan diardueneri.

ANAITASUNA uneoro EUSKERAZALEAK lagunakaz egongo da, bear dan laguntza eskeiñiaz. Bizkai Erriak, bizkaitar euskaldunak, ba dauke orain zelan eta non agertu euren bearrizan, asmo-bide ta lanak.

EUSKERAZALEAK aurrera egin daijala nai dogu, guztion arnasa eta diru-laguntzeagaz. Alkartasun onen deia, endaren deia, agintari eta erakunde guztiekana eldu beite, euskerea zaindu ta indartzeko. Ez daitela izan alegin au, euskerea museogai lez jagoteko, izkuntza bizi bat egiteko baiño. Gi-zarteko artuemon guztietarako gai egin daigula gure euskerea.

FUNCOR S. C. I.

Gaurko baserritarrak bear dituan MAKINAK
Trituradora — Errota — Naastale — Zerra — Uraga
Uraska

Europako aurrerapenik onenak emengo baserritarrentzat
Adi ta gomuta

FUNCOR

Arin baizen ondo

ELORRIO (Tel. 114)

ORMAZA

Konserbako Arraiñak

Marka ezagunak: «Ormaza» — «Raf» — «Cho»

Arrain preskoa exportatzen dau
ORMAZA'ren konserbak, onenak.

Fabrikak:

BERMEO'n: Tel. 95 ta 580 eta Korrean, 9-gn. zenb.
MUNDAKA'n.



BALENTIN URIONA zana, Mungilako «Guri Zeru» txokoan, bere euskal kirolari lagunekaz. (Josu'ren argazkia)

BALENTIN URIONA'ri

Izen bardiñaz giñan Balentin
Muxikan bataiatuak,
Naiz ta urtien aldia euki
Maitasun baten lotuak.
Uste bagako zure eriotzak
Jarri gaitu banatuak
Ez dira errez zuriz jantziko
Itxi dituzun lutuak.

Txirrindulari aundia ziñan
Mundu zear ezaguna.
Pil pilka, goian ebillenian
Balentin zure izena
Orra gazterik nun eldu yatzun
Egitekoen azkena
Baña erriak ez dau aztuko
Bizitzan egin dozuna.

Dauphine Liberé, Milan, San Remon
Garaille urten zenduan.
Tafalla eta Solluben bardin
Txapeldun danen onduan,
Txirrindulari eta gizon lez
Aundia ziñan munduan,
Erriak olan autortuten dau
Eriotzako orduan.

Toki danetan agertzen zendun
Euskaldun biotz zabala.
Egikeretan aundia baña
Izatez oso apala.
Zeure zanetan beti ebillen
Gorroto bako odola,
Kirolarientzat zu izan zara
Egi bidezko arbola.

Gaztearentzat eredugarri
Pozgarri zarrarentzako.
Txikitxutatik beti zentzundun
Agertu zarealako.
Zure antzeko gazte sendoak
Bear dira errientzako
Injustizia baztertu eta
Kontzientziz agintzeko.

Maite zenduzan jaiotza lurra
Bere izkuntza, oiturak
Bildurrik бага autortuaz
Berak ditun gora berak.
Gaur gazte askok baldin balitu
Balentin, zure jokerak
Zenbat obeto izango leuke
Elbarri dagon Euskerak...

Euskaldun jaio, euskaldun azi
Euskotar jator bizitza.
Gizontasunez aundia ziñan
Oituretan aberatsa.
Irribarrezko aurpegi xamur
Urregorritzako biotza,
Erri osoak lutuz artu dau
Balentin, zure eriotza.

Zugaz gelditzen naz

Arenaza Osalari jaunari

Eriotzeak bere agokadea iruntzi dau. Oraingoan urrekoea iruntzi be. Atsekabe latza, benetan, norbere sendi, auzo edo erritarren bat danean. Ta zelan ez atsekabetu, guztiok maite genduan txirrindularia izatean!

Penaz daukat biotza ta... pozik. Penaz, lagunaz ganera, kirolari on, gazte obe ta euskaldun jatorra joan yakulako; ta... pozik, beratzaz esan diranakaitik. Ago batez goraldtu dabe gure txirrindularia, ez txirrindulari lez, gizon legez baiño. Nortasun aundiko mutilla zan, nunai onartua izateko erakoa. Jatorriz? Ba leiteke zati bat. Beste zati aundi bat, iñok ezarria.

Txirrindularitzan zuzendari asko izan zituan, baiña gizon bat bakarra: ARENAZA JOSU Osalaria. Zurea izan zan benetako zuzendaritza; zurea karrerarik baliotsuena erakustea, zurea, kirol guztien elburua.

Karrera orretan, nire erritarra zuzendu zenduan orreri, neure barruko eskerrik egizkoena, ta... Europa osoko zuzendari guztien artcan, *zeugaz gelditzen naz.*

DEUNORO

ENBEITA'tar BALENTIN - 1967

ENKARTAZIÑOETAKO TXISTULARIEN II TXAPELKETA

—Gutziz ederto urten eban, gero ta geiagora doan Txapelketa onek.

—ANAITASUNA-k parte artu eban sariketa au eratzten.

—Bizente Aritzmendi, txapeldun.

Bengoia Zubizarreta'tar Joxe Koldobika

Enkartaziñoak

Enkartaziño alderdia euskal kultura ta oituretara itxartuten dator. Iru urtetik onantz, zaletasun bero bat asmetan da euskera ikasteko, txistularien txapelketak ospatzeko, euskal dantzari talde barriak sortzeko; berbaldiak, kultura aldiak, eta abar beba dira.

Aparteko indarra, Txistularien Txapelketak artu dau. Igaz asi zan. Iru agertu ziran lenengo sariketara, txapelketa ospatzeko beste egiñik. Jendeak ederto erantzun eban, txapelketariak txalo ugariz berotuaz. Aurten, txapelketa obeto eratuta egonik, 8 izan dira norgeiagokara agertu diran txistulariak.

Erakundea

Txistularien II Txapelketa au, lengo urtean lez, Sodupe-Gueñes-eko «Tele Club» ek eratu dau. Jose Mari Camino Arana gidari ebala, ederto eratuta egon da eta guztiz ondo urten dau.

Lankidetzak

Erakunde lanean lagundu dabe ANAITASUNA aldizkariak eta Txistularien Bazkondeak (Bizkaiko Ordezkaritzak).

Laguntza babesak

Txapelketa onen erakunde-ordaiñerako Gueñes-eko Udaltzetxeak lagundu dau geienbat, norgeiagoka ondo egiteko gogoz eta diruz babestuaz.

Gero, eta batezbe Bizkaiko Aurrezki Kutxak eta BEYENA-k, euren garaikur (trofeo) eta diru moltzoekaz; Txistularien Bazkondeak be 500 laurleko ipiñi ebazan sariketarako. Beste izenik ez goaz aitatzen.

Dagonillak 13 - Domekea

Iragarrita egoan lez, dagonillaren 13-an, igandez, Sodupen ospatu zan Txapelketa.

Goizeko 10-etan asi ziran txistulariak kalejiran jotzen, eta 12-etan puntuan, epaimaikoak, txapelketariak eta eratzailleak «Cinema Local» tokietan egozan, Txapelketari asikerea emoteko prest.

Jende asko aretoan (gaiñezka). Au idazten dauanaren itzaurra ta aurkeztearen ostean, lenengo txapelketariaren txosketa egin zan. Juan Mari Mendizabal izan zan lenengo asten.

Txosketa

Jotzailleak ez ekien nor izango zan urrengo. Jotzera bearturk egozan abestirako, batek amaitzen ebanean egiten zan barrero txosketa. Jokaera onek ez eutson iñori kalterik ez laguntasunik emoten; danak ernai egon bear eben nori tokatuko jakon begira.

Epaimaia

Epaimaia osotuten eben: Segundo Atxurra-k (maiburu), Julian Villelabeitia-k eta Jose Luis Bengoia Zubizarreta-k. Guztien eritxiz, irurok naiko ondo ezagutzen dabe txistu soiñua, eta alderdikeriz jokatzeko arriskurik ez egoan, iñor ez zan Enkartaziño aldekoa-ta.

Txistu abestiak

Zortzirak jo bearrezkoa, Primitivo Onraita Barakaldoko txistulari ospetsuaren «kontrapasa» zan. Bigarrena, baktotxak bere gogoz aukeratutakoa zan. Geienak, gatxa ta atzamar-joko andikoa aukeratu eben.

Zelan gelditu ziran

Bi ekiñaldien ostean, epaimaikoak puntuaziñoa emoten asi ziran, eta baktotxari berea emonda gero be, luzaroan ibilli ziran eztabaidan azken erabagiak artzeko. Bitartean, 25 txistularik, Saratxaga-tar Luis-ek (Sodupetarra) zuzendurik, jendearen atsegierako joaldi bat eskiñi eben.

Sariketa olantxe egin zan:

Txapeldun: Bizente Aritzmendi, Portugalete-koa, 80 puntugaz. Saria, 2.000 laurleko ta Bizkaiko Aurrezki Kutxaren kopa.

Bigarren, Luis Mari Igartua, 74 puntugaz. Saria, 1.000 laurleko ta BEYENA-ren kopa.

Irugarren, Demetrio Garaizabal, 71 puntugaz. Saria, 500 laurleko ta Gipuzkoar Bankuaren kopa.

Laugarren, Juan Carlos Carrera, 69 puntugaz. Saria, 300 laurleko ta Seguros Vizcaya-ren kopa.

Bosgarren, Jesus Mari Angulo, 67 puntugaz. Saria, 200 laurleko ta «La Gaceta del Norte»-ren garaikurra. Bera izan zan igaz txapeldun.



Epaimaikoak Bizente Aritzmendi txapeldunari zorionak emoten.

Seigarren, Juan Mari Mendizabal, 41 puntugaz. Saria, 200 laurlekota «Coca Cola»-ren garaikurra.

Eta ondoren Angel Carrera eta Jose Antonio Gonzalez.

Txapelketa onetara agertu diran guztieri bialduko jake ANAITASUNA aldizkaria urte betean, ordaindu bear barik.

Esker ona

Len aitatu doguzan erakunde ta bazkundetaz gaiñera, beste batzuek be lagundu eben txapelketa onen sariketarako: Vinos Acha, Vinos Navea, Gorostiaga ta Goitiosolo ta Espumosas Gorbea de Sodupe. Guztieri eskerrik asko!

Azkena

Danak zutunik, «Agur, Jaunak» abestu eben, txistulariak lagunduta. Danetzako zorionak, eta txapelketaren aldeko eritxi ugari. Datorren urtean III Sariketa ospatuko da, eta Jaunak lagun, ANAITASUNA-k egingo dau alegiña bere lankidetzak eskiñiaz.

Ule Luzeak eta...

Gaur artu dot ANAITASUNA ta, beti lez, goitik bera irakurri dot. Bizkaitar euskaldunak, batez be bilbotarrak, bearezkoa dogu bizkayeraz irakurtea, euskera kontutan «sasoian» egoteko. Eta, jakiña, lenengo irakurri dodana Mendizabal'tar Julen jaun eta adiskideak (adiskidea niretzat personalki ez ezagutu arren, euskalduna ta euskeraz idazten daualako) niri bialtzen daustan idazki agiria.

Ule luzeak dirala-ta, saltsa ona sortu dogulakoan nago. Baiña goazan aurrera.

Joan naz, amaiketan, beti lez, emen Deusto'ko San Pedro elizan daukagun igandeetako meza ederrera. Emen, meza ederra da euskerazkoa, beste erderazko guztiak baiño askozaz sakon eta maitagarriagoa. Iganderen baten, zeozergaitik, beste meza batera banoa, zeozeren falta nabaitzen dot. Zorionez, Deusto'ko abadeak ez dira Urkiola'ko langoak (oneik latinez egiten ei dabe, ango baserritarrak euskeraz baiño errezago ulertuko dautselakoan) edo bilbotar San Fernando'ko langoak (emengo parrokoak esan eban, Arruza (G. B.) euskal idazle ospetsua il zanean eta bere eleizkizunak egiteko, bere parroki zanean, euskeraz egitea eskatu eutsenean, «emen ni parroko nazan artean ez da euskerarik egingo»).

Esaten nijoan lez, gaurko mezan don Jose Leon'ek ebanjelioa irakurri dausku. Fariseo bat zan, elizara joan zana, ta publikanoa an ikusirik, olan egin eutson otoitza Jaungoikoari: «Eskerrak, Jauna, ni orrelangokoa ez nazalako. Ez naz ezkontza apurtzen dodana, ez..., ori dan lez». Bere burua eukan fariseoak ona lez. Besteak ziran okerrak.

Ez daigun guk be olako otoitzik jaso. Ez daigun pentsa ule laburdunak bakarrik doazala aldatz gora, ta ule luzedunak eta gona motzdunak aldatz bera.


Ule luze ta bizarrak ez dira gaurkoak. Josu Kristoren denporetan (eta Berak be) erabiltzen zan. Euskaldun gizon eta idazle ospetsu asko olakoak ziran (Zumalakarregi, Arana Goiri ta abar).

Gaur be ezagututen dodaz askorentzat «tipo raru» izango diranak. Euren artean, Lekaroz'ko aita Alazaran txistulari famatua ta aita Ezeiza «Zeruko Argia»ren zuzendaria, biak kaputxinoak. Beste batzuk dira «Ez Dok Amairu» euskal kantari talde trebeakoak.

Eta abestiak aitatu doguzan ezkerro, ara emen «Egun da Santi Mamiña» kantaren zati bat, Gabriel Aresti'ren «Harri eta Herri» liburutik artuta, ta Julian Lekuona abade abeslariak (noiz arte egongo jaku ixilik abeslari sakon eta eder au?) abes-tuten ebana:

Itsas aldean izarra
Hari begira lizarra
Euskera salbo ikusi arte
Eztut kenduko bizarra.

Lengo batean, «Ez Dok Amairu» taldeko zuzendari bat dan Joxe Antonio Artza'k esaten eustan euskaldunak ule luzeak eroan bear gendukezala, ainbeste injustiziren kontra protesta egiteko. Euren kitarra ta kantukaz egiten dabe al dabena baiña, durudienez, ez da ori naikoa.



Joxanton Artza, EZ DOK AMAIRU taldearen zuzendari bat. Txalapartaren bizi-tuereak eta euskal abesti barrien zabalkundeak asko zor dautso. Bazartu egin bearko dogu Artza ule luzea daukalako?

«Euskera salbo ikusi arte» protesta geinke modu askotara. Lenen, guk euskaldunok euskeraz egiñaz eta erakutsiaz. Itz egiten dakigunok, euskeraz idatziaz ta irakurriaz. Ez dakienak, ikasten. Lan au da pratikoena.

Beste protesta modu bat da, bear bada, poetak diñoana: «Eztut kenduko bizarra». Ta bestea, Urkiola ta San Fernando lako elizetan, gorago aitatu doguzanetan, dirurik ez iztea. Bear bada, egongo da Istituto'ko latinen katedratikoren bat Urkiola'ko mezara joan eta ulertuko dauana. Arek emon dayala dirua.

Baiña Mendizabal eta biok ule kontutan eritxi bardiñak ez badaukoguz be, batean bat gara, ta au da inportantea: Euskalerria'ren alde lan egiteko. Olan diño Imanol Berriatuak darabilgun ANAITASUNA'n, «dialogu zintzo baten bitartez, euskalduntasuna salbetako».

Agur, Julen, eta ia noiz alkar ezagututen garan. Bitartean, segi aurrera euskeraz idazten, ederto egiten dozu-ta. Euskera ta Euskal Erria'ren alde, aurrera!

Xabier Gereño

Euskerea ta Euskeragaz zer ikusirik ez dauken Oiturak

Lengo baten «ZERGAITIK EZ ULE LUZEAK» izen buruagaz idazlan polita argitaratu eban ANAITASUNA onetan Gereño'tar Xabier jaunak. Eta amaieran besteak emon eiezala euren eritxiak gai onetzaz esaten eban.

Gai polita ta asarre barik erabilteko modukoa dalako euskaltzale jaun orren naiari erantzunaz zertxobat esaten aleginduko gara.

Berak diño norbaitek besteen bide ta jokera lagaten badau gaiñontzokuok baiño personalidade geiago daukalako dala.

Nire ustez oituretan aldatzea, jantzi, orraztu ta olakoetan besteengandik bereizteak ez dau agertzen gizonezko edo emakume orreik personalidade geiago daukenik.

Ostera, bereizkunde orreitan arrokeri ta kaskarkeria egon leiteke.

Oiturak denporeagaz aldatzen joaten dirala esan bearrrik ez dago, ori danok dakigu-ta. Gu gizonok be orain eun ta beerrogetamar urte oneitan asko aldatu gara jazte kontuan. Baiña geienori ardura ta kezka gitxi emoten dausku jantzi kontuak. Ez gara abereak, billotsik ezin geinke iñora urten ta gure denporetako oitura modura jazten gara. Baiña bardin litzakigu jantzi kontuan beste oitura batzuk balegoz be.

Ostera, emakumeentzat garrantzi andiko kontuak dira jantzi, orraztu ta olako kontuak. Emakume gazteak etxean daukan edonok daki au olantxe dana.

Jantzia gora ta jantzia bera ibilliko jatzuez. Eguraldiak kezka asko emoten dautse. Ez bakarrik otz edo beroa edo euria edo eguzkia egin, baita euririk egin ez da be eguraldiaren koloreak zer ikusi asko eukiko dau olako edo alako soiñekoak kalera urteteko.

Ta baita gaurko mutil gazte asko emakumeen itxura artu naian ikusten doguz. Ez bakarrik ule luzeak baita zapata ta-kojak be naiko luzeak, gertian txaketea estutu ta abar.

Guk jantzi ta orrazkerari garrantzirik emoten ez dautsa-gunok baiño nortasun geiago dauke besteak ez modura jantzi ta agertu nai daben eta izpillu aurrean jira ta bira ibiltan diran emakume ta gizonezkoak?

Nik nortasuna gauza baliotsuagotzat neukan.

Ta aurrera joanik auziaren beste alderdi bat aztertu daigun.

Gauza guztiak dauke bere asiera. Ta lenengoan arritzen ginduzen gauza asko gaur berezko lez artzen doguz.

Baiña oitura barri orreik lenengoz agertu zituenak geienetan lotsabakoak izaten dira.

Gaur emakume batek zigarroa erretea ez da ezer, ez da be galtzakaz jaztea edo bere arpegia margoztutea eta ola beste gauza asko be.

Baiña danok ikusi dogu gauza barri orreik geure errietan lenengoz sartu zituenak lotsa gitxikoak zirana.

Gaur edozertara jarrita gagoz ta ez dakit ezergatik iñor lotsabakotzat joko genduken. Ondartzetan ia billotsik ikusten oitu gara emakumeak eta kalean be andrakilletan jantziakaz ikusten doguz gazte asko.

Orren aurka ez diñogu ezer, danak iñuzentzat artuko ginduekez da.

Jakiña euskalduntasuna ez dago lengo erara jantzi ta bizitean, lengo oiturak bakarrik erabiltean.

Gazteak bizar luzeakaz edo neskatillak ye-ye antzera ibilli ez dausku ardura izan bear orrez gaiñetik euskaltzaleak badira.

Euskera ta euskal kultura gaurkotasun oituren gaiñetik dago. Ori, egia.

Baiña egia baita be, arinkeriz, jentea eurai begira ipinteko edozer zorakeriz jantzi, orraztu ta olakotan nabarmendu nai dabenak orregaitik bakarrik nortasun apurrik be ez daukela.

Kamiñazpi

Euskal Abestiaren IV Sariketa

Euskalerriko IV Abesti Sariketa oiñarri onen arauz erazten da:

1.—Dei au agertzen danetik Urriaren lenengorarte artuko dira sariketara agertzen diranen lanak.

2.—Lan oneek, gitxienez euskal kutsu apur bat dauken abestiak izango dira. Ritmo aldetik, aurrekoen euskal abesti jatorren antzekoak naiz gaur-eguneko barriak izan daitezke. Gauregunekotzat edo modernutzat aitu bear da, musikeak gure egunetan sinfonia saillean izan davan aldakuntzea eta baita-bere jazz ritmoak.

Gizonezko naiz emakumezko batek abestuteko melodidunak izango dira (onartzen dan notarik bajuna: pentagrama azpiko sol; eta altuena: irugarren tarteko do; biak clave de sol deritxonekoak), akonpañamentu barik, eta jatorrizko itzak euskerazkoak, iñoz argitaratu bakoak. Abestia ezta minutu bi t'erdia baiño luzeago izango.

3.—Abesti lanak korreoz zertifikatuta bialduko dira edo eskura emon, zuzenbide onetan:

Avenida del Ejército, 18, 3.º d.

CINSA

BILBAO-14

4.—Egillearen izena ixillean eukiko da. Orretarako, sariketa abestien tituluak etorriko dira papeletan, egillearen edo egilleen izen eta zuzenbide barik. Partitureagaz batera, sobre itxi bat bialduko da, eta barruan egillearen edo egilleen izenak eta zuzenbideak, gaiñean dakarrela: «... (abesti izena) abestiaren egillearen izena ta zuzenbidea daukoz». Sobre itxi onek notario bateri eskuratuko jakoz, zaintzeko.

Abestien itzak edo letreagaitik aparteko ardurea eskatzen da. Partitureak dakarrenaz gaiñera, makiñaz garbi idatzitako textoaren kopia bat bialdu bear da.

5.—Epaimaikoak musikarari jakintsuak eta olerkariak izango dira, agertzen diran abesti lanak aztertzeko; euren ustez diran sei onenak aukeratuko dabez.

6.—Azkenerako aukeratzen diran sei abesti onenak, Sariketa au eratu dabenak aukeratutako abeslari ta musikoek interpretatuko dabez jardunaldi batean edo batzuetan, ikusle-entzuleen aurrean.

Abestiak, armonizaziño ta instrumentaziño onegaz interpretatuak izango dira:

(Urrengo orrialdean jarraitzen dau)

Euskal Abesti Sariketari buruz

Oraintsu, ondiño lengo baten, munduan saltzen diran aldizkarietan estimaduenak, Erri Alkartuetako «Time»-k euskaldunoi buruz, auxe iñoan: «...Txapela da eusko kultureak sartaldeko errialdeai eskuratu-takoen artean, aintzat artugarriena...»

Okzidenteko errioi soñu-eresietan, geure gogoaren agerkunde lez «Elgorria izango da» ta «Bilboko illargia» emon ezkerro, «Time»-k esandako orri asko lagundu leikioe.

Euskal Abestiaren III Sariketan sarituta dagoz «Elgorria izango da» ta «Bilboko illargia». Euskaldunik eztauke letrea baño. Abesti oien gogo Liverpool'ekoa edo Tin Pan Alley'koa da.

Sorozabal'entzat euskaldun soñuak olako izan bear leuke: «Zelan edo alan euskaldunok (a entzunaz) gogo, bat batean an aurkitzeko lakoa; berez-berez, geure sentikerak biziarratzen daskuzana». Egian dagolakoan nago.

Esakera orreïn mamiñaz, «Elgorria izango da» ta «Bilboko illargia» euskalduntzat artzea gatxa be gatxa da. Euskeraz abestu ezkerro ludiko bost ertzetatik iatorkuzan millaka abesti, aitatutako biok baño euskaldunagotzat doguz. Abesti barrion «egilleok» eurok be, eztot uste au ukatu daikeenik: abestiok egiteko sena atzerriko abestietan oñarritua dala.

Euskaldun soñuaren aldakuntza edo «aurreratuaz barritzea» barik, iñoren kultura baten billa ioate bat baño besterik eztira.

Beethoven edo Aita Donosti batek egin eben lez aldakuntza bat, barritze bat egitea, aurrera egitea da, bearrezko da, bizitza.

Beethoven'ek, Bach'en iokabide ta eritxiak baztarrean itxi ebazan, bai; baño zer-bait barri egiteko, barria ta berea.

Ezeban aldakuntza egin, Schubert'eri begira kopia bat egiñaz.

Aldakuntza, aurrera egitea gatxa da; barrizalekerian iaustea baño askoz be gatxago.

Eztot uste okerrean nagoanik onako au uste dodanean: olako «euskal abesti sariketa» gura dabenak «vanguardismo» baten «aurretik edozelan ibilte baten» billa dabilzala, euskal soñuaren kultura lantze barri baten billa baño geiago.

Betiko euskal soñuaren bideetan oñarritzea «koba-zuloetara barriz sartzea» litzakela esaten diardue. Baña egia esateko, koba-zuloetako gizonak egindako soñuaren antz geiago zeifiek dauke? Gure soñu zarrak, ala Beatles edo Rolling Stones'enak?

Beste batzuk, zintzotasun geiagor, soñuak gure egunetako bizitza ta kezkek adierazo bear leukezala, diñoie.

Neu be orrexetan nago; baño auxe diñot, gaurko euskaldun gaztediaren koxka ta kezkek Liverpool'eko, edo New York'ekoak dabezan lakoak ete dira?

Sariketa oneitarako, arein soñuen itxura-koak egiten diardugu-ta.

Nik uste dot, gure gaztediak, gizarteko, ekonomiko ta erlejiñoko kozkaen gañera, karagarrizko kozka bat bizi dauala: **eusko nortasunaren bizitza edo eriotza**.

Ezagutzen dot Liverpool eta Erri Alkartuetako gaztedia. Geienetan gaztedi mengel bat da, kezka bakoa, odol bakoa, siñeste bakoa. Eta gañera erri biotako gazteak, erriak (erri lez) galtzeko bildurrean bizi direanik ez dot uste.

«Euskal Abesti Sariketa» diralako oien aurka enago; euskerarentzat baliotxu bat izan daikee-ta, baño, mesedez, eztaigun esan **euskal abestiak** diranik. Izan leiteke euskera ezaguarazteko onak izatea (iñor

euskera ikastera bultzatuko dabenik eztot uste baño...), onetarako egin daiteken edozer ona da, ondo egiña.

Baña eztaigun egin olakorik, geure nortasunaren agerkaririk onenatariko bat, soñua, alperrik galtzeko zorian iarririk.

Oso bertan bera itxia dogu geure soñua. «Boga boga» ta beste bost betikoak baño eztoguz ezagun, geienok.

Euskal abesti iaialdiok, geurera ez garoez. Gañera, geure soñuaren nortasuna, marro iantzita eztaigun ipiñi. Geure Erriaren nortasunari eutsi daiogun.

Gaur garrantzirik geien dauana, geure nortasuna agertzea da, ikusi arazi daigun Erri bat bizi dala.

Inglesak, iankiak, edo italiarrak egiten diarduena egin bear ete dogu orretarako?

Idatzi dodan au, ezer onik apurtu edo beeratzeko izaterik eneuke gura. Orrexe-gaitik diñot: «Euskal Abestien Iaialdi» baderitxoegu, orixe izan daitezala: **euskal abestiak**. Ez daust ardura, bakarrekoak, orfeoikoak, zortzikoak, bikoteak, edo onenen taldetxoak abestutea, baño geure geurea dogun soñua edo iturri onetatik edana abestu dagiela.

Ta soñu barri barri bat asmauta egingo balitz, askoz obeto; baño barria izan daitela, ta ez iñonetik artua.

—Ritmo beatlean eginda baño entzute ta ospe gitxiago izango dabela iaialdiok?

—Gatxago dala, au egitea, ez errikoago?

—Aurrendari antzik eztogula izango?

Ba leiteke. Baña obe dalakoan nago; geure soñua, geure gogoaren zati bat da-ta.

Euskera be ez ete da, ba, gatxa, ta ez-errikoa?

Euskera be itxi egingo ete dogu orrege-gaitik, inglesera, edo italiara artzeko?

GALLASTEGI'tar LANDER

Organo electrónico

Guitarra electrónica

Contrabajo

Piano

Flauta

Batería de jazz con toda clase de accesorios rítmicos.

7.—Azkenerako sei abesti aukeratuak armonizatu ta instrumentaziñoa ipinteko —ez dira egilleen izenak jakingo— olantxe egingo da:

a) Euren armonizaziño ta instrumentaziñoagaz aurkeztu gura dabezanak, 2.- eta 4.- oiñarrietan aitatu lez, abestien eta itzen partitureagaz gañera beste partitura bat bialdu bear dabe armonizaziño eta instrumentaziñoagaz.

b) Bigarren partitura au bialtzen ez daben egilleak, armonizaziño ta instrumentaziño lana, sariketa eratzen dabenentzen pentzura ixten dabela adierazoten dabe. Abesti bakotxaren lana 2.000 pta. inguru kostako jake. Diru au sarietatik artuko da.

8.—Ikusle-entzuleak erabagiko dabe, botaziño bidez, zein gelditzen dan txapeldun eta ondorengo.

Sariak oneexek izango dira:

Lenengoa, OGEI MILLA PESETA

Bigarrena, AMAR MILLA PESETA

Irugarrena, SEI MILLA PESETA

Laugarrena, bosgarrena eta seigarrena, LAU MILLA PESETA bakotxa.

9.—Epaimaikoak nortzuk diran ezagutzera emongo da, azkenerako aukeratzen dabezan sei abesti onenak zeintzuk diran esatean. Eta abestien egilleen izenak jakinarazoko dira azkeneko botaziñoa egin ostean.

10.—Sariketa au Cinsa-ren pentzura dago, COCA COLA-k eta FANTA-k, eta beste bazkunde ofizial, musikako ta folkloreakoak lagunduten dabela.

11.—Cinsa-k beretzako artzen dau, abesti aukeratuen musika-idazkiak eta diskoak argitaratzeko eskubidea, abeslariak aukeratzen dauzala, bi urterako berak bakarrik, Egilleen Lagunartean (Sociedad de Autores) eskatzen dauana ordainduz.

12.—Sariketa onen eratzailleek, oiñarri oneek ondo aitu-teko azaldu leitekezan eztabaietan erabagitzeko eskubidea dauke, eta bardin, txapelketa au al dan obetoen egiteko jarri bearko litzakezan geigarritzko azalpenak emoteko.

Bilbon, 1967-ko Maiatzak 26



Muxika'ko iauregi zaar baten agertzen dan eskudua.



Ugarte'ko S. Bizente, Bizkaiko eleiz zarrenetariko bat.

Nun dago erri au? Euskalerriraren biotz-ondoan. Biotza Gernika da; ta biotzaren ondoan ba dauka Euskalerrriak Muxika'n osasuna, biotzean baño geiago. Nik esango neuke Gernika'ri euskaldun antza emoten dautsona, Muxika dala, muxikarrak. Igande ta astelenetan, goiz nai arratsalde, euskera entzuten badozu, lautatik bi muxikarrak dira.

MUXIKA ATZO

Antxiñatean Euskalerriko erri ospetsuenetariko bat. Jauntxo-erria. Iauregiz betea. Muxika izena, alantxe eritxon gaztelu zaar batetik iatorko erri oni. Etxe au Iturriza'k eta Delmas'ek diñonez, 962'garren urtean lasoa izan zan «Andramendi» eritxon etxe zaarrago bateko arriekaz.

Andikiak, gaur lez orduan be, alkarregaz «ondo konpontzen» ziranean, aberriko ta atzerrikoekaz artu-emonetan, «Muxika» gaztelukoak eziran atzetik ibiltekoak.

Etxe onetako seme bat, 1.140'garren urte inguruan Gaztela ta Leon'go erregea zan Alfonso VII'garranaren alabeagaz ezkonku zan.

1380'garren urtean «Muxika» etxeko alaba da Butron gazteluko jauntxuagaz ezkontzen dana. Aldi aretakorik, orma zaarrak baño eztagoz gaur.

Orduan eta gaur, andikiak, jauntxoak erri entzutetsuak egiten dabez, baiña atzerrira begira geienetan. Au da, atzerritarren oituretara egiten ziran, atzerria maite eben, itz baten, «jauntxokeria».

Erri onek ebazan jauntxuak, Muxika, Oka, Iburguen, Urbillotz eta abar, ospetsu badira, Euskalerrriaren onerako egin ebena-gaitik baño geiago, Gaztela, Leon eta Asturias'en egindako gudal-diakaitik dira.

Espaniar edestian izentauak dira guztiok Iturriza'k eta Delmas'ek diñoskuenez; Euskalerrrian egindakoa ba dakigu: anai-arteko naiko burruka; jauntxokeria iñoz ezta izan gurea ta.

MUXIKA GAUR

Muxika asko aldatu da, baiña aldi aretako zer asko, onak eta txarrak, irauten dabe.

Onak: erri-maitasuna, euskera ederra, ausardia, gizontasuna, umore ona, asmo barriak...

Txarrak: Nor-geiagokeria, auzoetako alkar ikusi gura-ezak, diru miña...

Muxikarrak zenbat? Orain illabete: 1.505.

Atzerritik etorriak: 160, 28 senditan.

Beraz: 1.345 euskaldun, eta 160 erbesteko.

* * *

Muxika'n auzoune bi dagoz, oso bereziak, bata besteagandik oso aldenduak, lurrez eta biotzez: Ugarte ta Ariatza.

Muxika'ko eleiz parroki zaarra bion bitartean dago tontortxo baten, San Roman'en omenez. IX'garren gizaldikoa izan daiteke.

XI'garren gizaldian Ugarte'ko S. Bizente, S. Millan'eko kartularioan agertzen da, Bizkaí'ko beste eleiz zaar batzuen artean.

S. Roman leenagokoa izanik, IX'garrenekoa izatea, izan daitekena da.

Ariatza'n be ba da «Kurutze Deuna» eleizatxoa askoz oraintsuagokoa.

Bearrizanei erantzuteko egingo eben Ariatza'ko au; batetik bestera 5 Km. edo dagoz ta. Eleizkizunetara, oñez 5 Km., euri nai aterri egiteko gero, siñismena edo siñiskeria bear da. Gaurkoak barriz, lar eztozu ez batekorik ez bestekorik.

Arrigarri dan arren, ondiño oraintsu ainbeste kilometroan oñezkoak eroaten izan dabez gorpuak parrokiraño. Atomiku-aronetan...

Eleizkizunak.—Bost meza dagoz eleiz biotan. Iru Ugarte'n, eta bi Ariatza'n. Meza guztiok euskeraz ei dira; Ugarte'n itzaldiak euskera ta erdera.

Ei dira, diñot, onexegaitik. Oraintsu il iakun Balentin Uriona'ren illetan etzalako olakorik egin. Meza latiñez, irakurgaiak, euskeraz bat, erderaz bestea, itzaldia erdera uts-utsez, naiz ta mezaemollea ta erria geiena euskaldunak izan. Askok eta askok ez gendun ondo ikusi ordukoa. Olako egunean, alakoagaz a egiten danean, besteetan...

Kristau Ikasbidea, euskera ta erdera emoten da Ugarte'n; Ariatza'n ezelan bez. Olakorik!; ez ete dago ba bearrizanik?

Bizibideak.—406'k baserrian lan egiten dabe. 183'k lantokietan.

Lau serra ta lantegi bi dagoz erri onetan. 40'ren bat langille dabiltz lanean bertan; besteak Gernika'ra doaz.

Bizkaian beste iñon ez lez, bizi da erri onetan bertsoalaritza. Bertokoa gendun KEPA ENBEITA «Urretxindorra». Aren azia emonkorra izan da, ta edonon agiri da. Balendin, aren semea, Abel eta Deunoro lobak; Lopategi ta Iturri, auzokoak. Ederra benetan onein sena.

MUXIKA BIAR

Eztakigu ba zer izan leitekean. Geroari buruz, Iainkoa bakarrik itz-dun. Gure ametsak egi biurtu balediz!

Geure buruaren iaube giñanean lez Muxikarrok barrero 7'gn. iarlekuan, Gernika'ko Aretxpean, iarriko balitzaz!

Euskaldun amak, euskera ta euskal gogoa umeai emoten aspertuko ezpalitzaz!

Euskaldun abadeok, amak emondakoaz gañera, Eleiz Amak agintzen dauskunez, Erri onen gogoari eusten aleginduko bagiña!

Ta eztaukelako ama askok umeai emoten eztautsena, guk al dogunok emongo bageuntse!

Sabela ezjala gure iainko, siñistuko bagendu!
Ba-ba, ba, ba, guztiok, esan bearrrik ezpaneu!

Orduan iñok eleuke iñoz esango: «Erri bat izan zan», ez Muxika'gaitik, ez Euskalerrriagaitik.

Batu daiguzan guztion indarrak, asmoz eta egitez geroa izan daigun.